


AURREZKI KUTXAREN ERAIKINA
D MAILA**PEÑAFLORIDA 1**

Egileak eta data: Nemesio Barrio eta Jose Goicoa; 1870 / Ramon Cortazar; 1945
(Ez dago jatorrizko proiektuaren planorik Udai Artxiboan)

Deskribapena

Kantoiko eraikina, orube horretan N. Barriok eta J. Goicoak 1870ean proiektatutako ikastetxe publikoa ordeztzen duena. Behe oina eta hiru goi oin ditu (bigarrena eta hirugarrena altuera handikoak), gehi estalkipe mantsardatu bat. Harlanduzko fatxadak, Aldundiaren Jauregiaren alboetako fatxaden ordenari jarraitzen diotenak. Fatxada zertxobait atzeraemana Garibai kaleko eskuinaldeko ertzean. Alaka nabarmentzeko, pilastra dorikoak eta erlaiza dituen fabrikako horma atal bidez eteten da mantsarda, eta errematean probintziako armarría duen estalki-pabilioia du. Estilo neoklasikoko konposizio soila.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa. Babes hori eraikinaren gaur egungo konfigurazioarekin lotzen da.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokitu dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
 - * Gaineke silueta mantenduko da.
 - * Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin loturikoa.